



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abuztuaren 26a

90. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa**

—”Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ordainsari aldakorrak (2018-2019)” fiskalizazio-txostena,  
Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ordainsari aldakorrak (2018-2019)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ordainsari aldakorrak (2018-2019)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00018).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Osasunbidea-Nafarroako “Osasun Zerbitzuko ordainsari aldakorrak (2018-2019)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- |  |   |
|--|---|
| <p>I Sarrera (3. or.).</p> <p>II. O-NOZKO ordainsari aldakorrak (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. O-NOZko ordainsari-kontzeptu aldakorrak (4. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">II.2. NOZko langileen ordainsari aldakorren ondoriozko gastua (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.3. Informazio sistemak (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.4. Ordainsari aldakorren kudeaketa O-NOZen (10. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (11. or.).</p> <p>IV. Iritzia (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Barne kontrolari buruzko konklusioa (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legediaren betetzeari buruzko iritzia (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Auditoretza finantzarioko iritzia (13. or.).</p> <p>V. Konklusioak eta gomendioak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. O-NOZko ordainsari aldakorrak kudeatzeko prozedura (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Amaierako konklusioa eta gomendioak (21. or.).</p> <p>1. eranskina. O-NOZko ordainsari aldakorrei aplikatzekoa den arau-esparrua (24. or.).</p> <p>2. eranskina. Diagrama, O-NOZko ordainsari aldakorrak kudeatzeko prozesuan parte hartzen duten aplikazioena (26. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (27. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (28. or.).</p> |
|--|---|

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2019rako fiskalizazio-programan sartu zuen txosten bat egitea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ, hemendik aurrera) langileek jasotako ordainsari aldakorrei buruz.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenen, O-NOZko ordainsari aldakorrekin zerikusia duten zertzelada orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak txosten honen helburuak eta norainokoa deskribatzen ditu; laugarrenak aztergai den kudeaketari lotutako barne kontrolaren eta informazio-sistemen gaineko konklusioa jasotzen du, bai eta betetzeari eta arlo finantzarioari buruz daukagun iritzia ere; eta azkena den bosgarrenean azaltzen dira egindako lanaren konklusioak eta bertako gomendioak. Txostenean bi eranskin ere biltzen dira, jasotzen dutenak O-NOZko ordainsari aldakorrei aplikatzekoa zaien araudia eta horien kudeaketaz arduraturiko ingurune teknologikoaren diagrama.

Lana 2019ko azarotik 2020ko maiatzera bitartean egin zuen lantalde batek, zeina osaturik baitzegoen auditoretzako bi teknikari, sistema informatikoetako goi teknikari bat, sistema informatikoetako teknikari ertain bat eta auditore batekin, eta Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboak laguntzaile zituela.

Eskerrak ematen dizkiegu O-NOZko, Administrazio Elektronikoko Zerbitzuko, Ogasuneko, Giza Baliabideetako eta SITNAko langileei eta Tracasa Instrumental SLkoak izanik zerbitzu honen lankidetzen jarduten duten langileei, bai eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusikoei ere, lan hau egiteko eman duten laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan jasotakoari jarraikiz, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Osasun Departamentuko kontseilaria.
- O-NOZko zuzendari kudeatzailea.
- Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea.
- Lehendakaritza Departamentuko Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia.
- Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea.
- Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailea.
- Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzailea.
- Osasun Mentaleko kudeatzailea.
- O-NOZko profesionalen zuzendaria.

Kontuen Ganberak emandako epean, alegazioak aurkeztu ditu O-NOZko profesionalen zuzendariak.

Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta txosten hori behin betikotzat jaulkitzen da, jotzen delako alegazio horiek egin den fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela haien edukia aldatzen.

## II. O-NOZKO ORDAINSARI ALDAKORRAK

### II.1. O-NOZKO ORDAINSARI-KONTZEPTU ALDAKORRAK

O-NOZko langileek jaso eta aurrekontuko 1. kapituluan erregistratuta dauden ordainsari-kontzeptu aldakorrak honako hauek dira<sup>1</sup>:

- Jaiegunak: igandez edo lan-egutegiak jaiegun deklaraturiko beste egun batean lan eginiko ordu bakoitzaren ordaina. Lan eginiko 33.<sup>2</sup> jaiegunetik aurrera, diru-ordaina ehuneko 50 igotzen da. Lanbide-mailaren arabera 2019an jasotako kopuruak hauexek dira:

(euroak/ordu)					
Maila	A	B	C	D	E
Jaiegunak	8,82	8,82	8,12	7,35	7,35
Jaiegunak, >33	13,23	13,23	12,18	11,03	11,03

- Gauekotasuna: gaueko lanordu bakoitzeko ordainsaria (gaueko lantzat jotzen da 22:00etatik biharamuneko 08:00etara bitarteko tartean eginikoa). Lanbide-mailaren arabera 2019an jasotako kopuruak hauexek dira:

(euroak/ordu)					
Maila	A	B	C	D	E
Gauekotasuna	3,84	3,84	3,14	2,75	2,75

- Errotaziozko txanda: Hiruhileko kontaketa globalean lanaldia heren bat baino neurri handiagoan aldatzen zaien langileek mailaren ehuneko seiko ordainsaria jasoko dute.

2018ko urrira arte, kontzeptu hori jasotzen zen kasuko lanpostuak osagarri hori esleituta zeukan kasu guztietan. Aipaturiko unetik aurrera, SAP-giza baliabideetan aldaketa batzuk egin dira, eta kalkulu hori egiten duen kontrol bat sartu da, egiaztatze aldera ea ordutegian aldaketa hori gertatzen den ala ez eta, kasua bada, ordainsari hori jasotze aldera.

- Presentzia fisikoko guardia: lantokian egoteagatik ordainsaria, honako zenbateko hauen arabera (2019an):

(euroak/ordu)					
	A maila	B maila	C maila	D maila	E maila
Presentzia fisikoko guardia	25,79	15,48	12,37	9,88	9,88
	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Presentzia fisikoko guardia, prestakuntzako langile egoiliarak	15,48	18,05	20,63	22,70	22,70

<sup>1</sup> Adierazitako zenbatekoak 2019ko uztailetik abendura bitarteko eperako aplikatuak dira; 2019ko lehen sei hilabeteetan kopuruak beste batzuk ziren.

<sup>2</sup> Kalkulu honi dagokionez, lan egindako jaieguntzat jotzen dira halako egunak non gutxienez ere lanaldiaren erdia jaiegun batekoa baita.

- Guardia lokalizatua: lokalizagarri eta abisuak jasotzeko moduan egoteagatiko ordainsaria, honako zenbateko hauen arabera (2019):

(euroak/ordu)

Maila	A	B	C	D	E
Guardia lokalizatua	12,89	7,73	6,18	4,95	4,95

Guardia lokalizatuaren iraunaldian zehar abisurik artatuz gero, jasotzaileari honako kontzeptuen arabera ordainsaria ere pagatuko zaio:

a) Artatzeako guardia lokalizatua: hiru aldiz edo gehiagotan abisuak jasotzeagatiko ordainsaria, edo bi edo gehiagotan jasotzeagatikoa, baldin eta horiek 22:00etatik 08:00etara bitarteko denbora-tartean gertatzen badira; kasu horretan, jasotako ordainsaria presentzia fisikoko guardiarena da.

b) Artatzeako orduak: aurreko puntuan adierazitako kopurua gainditu gabe abisuak artatzeagatiko ordainsaria, honako zenbateko hauen arabera (2019):

(euroak/ordu)

Maila	A	B	C	D	E
Artatzeako orduak:	12,89	7,73	6,18	4,95	4,95

Zenbateko horiek aplikatzen zaizkio eginiko artatzeen iraute-orduei baino ez.

- "Guardiaturtza" guardia: 12,93 euro/orduko ordainsaria fakultatiboentzat, ospitaleko (laguntza espezializatua) edo ospitalez kanpoko sistemako (oinarrizko laguntza) osasun-zerbitzuak koordinatzeko egiteagatik.

- Bisita pasatzea: 51,58 euro/orduko ordainsaria fakultatiboentzat, ospitaleratuta dauden gaixoei osasun-zerbitzua emateagatik larunbat, igande eta jaiegunetan. Medikuntzako espezialitate bakoitzak gehieneko ordu-kopuru bat dauka esleituta, langileek kontzeptu horretan kobra dezaketena.

- Sakabanatze geografikoaren eta kapitazioaren osagarria: ordainsariak oinarrizko osasun-laguntzako fakultatiboentzat eta erizaintzat, artaturiko populazioaren sakabanatze geografikoaren mailari, iraunaldiari eta norberaren ardurapean dauden osasun-txarteldun herritarrei loturikoak. Hilabetez hilabete eta aipatu aldagaien arabera aldatzen doazen zenbatekoak dira.

- Produktibitatea: kontzeptu honekin ordaintzen dira errendimendu berezia, aparteko programetan edo jarduketetan parte hartzea, lanaldi osagarriak egitea, ekarpen zientifikoaren balio edo interes ezohikoa, eta, oro har, jendea zerbitzu gehiago edo hobea ematea edo kantitate nahiz kalitate handiagoa edo hobea dakarten ekintza guztiak. Halako definizio zabala dela-eta, kontzeptu horrek askotariko azpikontzeptuak barne hartzen ditu, honela sailka daitezkeenak:

a) Produktibitate arrunta: hileroko ordainsaria, betetzen den oinarrizko lanpostuarenaz bestelako eginkizunak egitearen ondoriozkoa (kasurik gehienetan burutza-eginkizunak izan ohi dira).

b) Produktibitate berezia: kasu honetan mota ezberdinak daude, osasun-esparruaren arabera. Horrenbestez:

\*Oinarrizko Laguntza. Honako inguruabar hauek ordaintzen dira: lanaldi-luzapena (67,92 euroko ordainketa, kontsultan sei gaixo edo etxean bi artatzen badira, edo zati proportzionala, kasua bada); profesional baten lanaldi osoaren edo partzialaren ordezipena (271,68 euroko ordainketa, lanaldi osoarengatik); ohiko lan-ordutegian zeregin gehigarriak betetzea (67,92 euroko ordainketa, artaturiko gaixoen kopuruaren arabera, edo zati proportzionala, kasua bada); pizgarriak (zentro bakoitzari aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian eta Osasun Departamentuaren helburuen arabera kopuru bat banatzea, zeina langileen artean zatitzen baita, zentro bakoitzak horretarako egoki deritzon irizpideari jarraikiz); larrialdien artapenean diharduten langileen ordezipenak (33,96 euro/orduko ordainketa fakultatiboentzat, eta 20,38 euro/orduko erizaintzat).

\*Laguntza Espezializatua. Honakoen ondoriozko ordainsariak daude: itxarote-zerrendak laburtzeko programak egitea, lanaldiaren luzapena eta arratsaldeetako jardun ezohikoa. Kasu honetan, araudia 2019ko uztailan aldatu zen, eta une horretatik aurrera modulu batzuk aplikatzen dira, eginiko orduen edo jarduera-motaren arabera.

- Ordu-gaindikina: lanaldi osoan diharduten langileek orokortasunez jasotzen duten ordainsaria, zerbitzu-arrazoien ondorioz ordu gehiago egiten dituztenean kontratuz dagozkienak baino. Ez dago araudirik ordu horien zenbateko unitarioaren kalkulua eraentzen duenik.

- Opor-ordainaren hainbanaketa: urteroko abenduko nominan, langileek oporraldiari dagokion ordainsari gisa jasotzen dute gauekotasun, jaiegun eta guardia kontzeptuengatik urtean jasotakoaren batez bestekoa.

Deskribaturiko ordainsari-kontzeptuei eragiten dien araudia da txosten honen 1. eranskinean jasotakoa.

## II.2. O-NOZKO LANGILEEN ORDAINSARI ALDAKORREN ONDORIOZKO GASTUA

### Gastua ordainsari-kontzeptuka

Azken bost urteotan aurrekontuko 1. kapituluaren bitartez ordainduriko gastua, O-NOZko ordainsari-kontzeptu aldakor ezberdinei dagokiena, 282,66 milioikoa izan da, honela banatuta<sup>3</sup>:

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	(milioitan)	
						2019/2015 aldea, %	2019/2018 aldea, %
Presentzia fisikoko guardia	18,84	18,80	18,81	19,78	20,93	11	6
Jaiegunak	7,27	7,49	7,99	8,45	9,03	24	7
Produktibitatea	1,91	2,19	3,36	4,73	5,94	211	26
Guardia lokalizatua	5,24	5,24	5,24	5,38	5,39	3	0,2
Gauekotasuna	4,84	4,95	5,06	5,21	5,53	14	6
Kapitazioa, sakabanaketa geografikoa	4,49	4,54	4,57	4,61	4,74	6	3
Opor-ordainsariaren hainbanaketa	3,54	3,59	3,67	3,84	4,00	30	22
Errotazio-txandak	2,94	3,05	3,15	3,30	3,27	11	-1
Bisitak pasatzea	2,23	2,26	2,26	2,22	2,34	5	5
Ordu-gaindikina	0,74	0,61	0,58	0,56	0,65	-12	16
Guardiaturtza	0,25	0,25	0,27	0,27	0,27	8	0
Artatzezko guardia lok.	0,30	0,31	0,33	0,29	0,26	-13	-10
Artatzezko orduak:	0,10	0,10	0,10	0,11	0,10	-	-9
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>52,69</b>	<b>53,38</b>	<b>55,39</b>	<b>58,75</b>	<b>62,45</b>	<b>19</b>	<b>6</b>

Azterturiko epeko batez besteko gastua 56,53 milioikoa izan zen, eta 2019an, 62,45 milioikoa; azken urte horretan, zenbateko hori ehuneko 19 eta ehuneko 6 handiagoa izan zen 2015ekoa eta 2018koa baino, hurrenez hurren.

<sup>3</sup> Aurrekontu-partidak ez datoz bat izendapen hauekin, baina gastua ordainsari-kontzeptuaren arabera adierazten dugu, informazioa ulerterrazagoa izan dadin.

Kontzeptu bakoitzak ordainsarien multzoan duen pisua ia berbera da azterturiko urte guztietan, ondoren erakusten dugun bezala:

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019
Presentzia fisikoko guardiak	35,8	35,2	34,0	33,7	33,5
Jaiegunak	13,8	14,0	14,4	14,4	14,5
Produktibitatea	3,6	4,1	6,1	8,0	9,5
Guardia lokalizatuak	9,9	9,8	9,4	9,2	8,6
Gauekotasuna	9,2	9,3	9,1	8,9	8,9
Kapitazioa, sakabanaketa geografikoa	8,5	8,5	8,3	7,8	7,6
Opor-ordainsariaren hainbanaketa	6,7	6,7	6,6	6,5	6,4
Errotazio-txandak	5,6	5,7	5,7	5,6	5,2
Bisitak pasatzea	4,2	4,2	4,1	3,8	3,8
Ordu-gaindikina	1,4	1,2	1,0	0,9	1,0
Guardia burutza	0,5	0,5	0,5	0,5	0,4
Artatzezko guardia lok.	0,6	0,6	0,6	0,5	0,4
Artatzezko orduak:	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Aurreko taulen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Presentzia fisikoko guardiak, jaiegunak eta guardia lokalizatuak (35,35 milioi 2019an) dira epealdiko gasturik handiena hartzen duten hiru kontzeptuak, batez besteko portzentaje hauek egiten dituztela: ehuneko 35, 14 eta bederatzi, hurrenez hurren.

- Gauekotasunaren ondoriozko gastuak (5,53 milioi 2019an) guztizkoaren ehuneko bederatzi egiten du urte guztietan.

- Produktibitateak (5,94 milioi 2019an) garrantzia hartzen du epealdian zehar, halako moldez non 2015ean ehuneko lau hartzetik 2019an ehuneko hamar hartzera igaro baita.

- 2019an, kapitazio eta sakabanaketa geografikoak, opor-ordainsariaren hainbanaketak kontzeptu ezberdinengatik eta errotazio-txandek (guztira 12,01 milioi 2019an) ehuneko zortzi, sei eta bost egiten dute, hurrenez hurren.

- Bisita pasatzeek (2,34 milioi 2019an) ehuneko lau egiten dute, eta gainerako osagarriek, ehuneko bata edo gutxiagoko portzentaje bat.

#### **O-NOZko antolaketa-unitate bakoitzeko gastua**

Gastua antolaketa-unitateka aztertuz gero, honako emaitza hauek lortzen dira:

Kudeatze-zentroa	2015	2016	2017	2018	2019	(milioitan)	
						2019/2015 aldea, %	2019/2018 aldea, %
Nafarroako Ospitalegunea	28,66	29,60	30,96	32,65	34,03	19	4
Oinarrizko Osasun Laguntza	14,30	14,55	14,97	14,75	15,64	9	6
Reina Sofia Ospitalea (Tutera)	4,97	5,21	5,43	5,82	6,09	23	5
García Orcoyen Ospitalea (Lizarra)	3,31	3,26	3,27	3,35	3,56	8	6
Osasun Mentala	0,61	0,57	0,58	0,73	1,29	111	77
Besterik	0,17	0,17	0,16	1,44	1,82	971	26
O-NOZko Zuzendaritza Nagusia	0,67	0,02	0,02	0,01	0,02	-97	100
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>52,69</b>	<b>53,38</b>	<b>55,39</b>	<b>58,75</b>	<b>62,45</b>	<b>19</b>	<b>6</b>

Aurreko datuetatik ateratako konklusio nagusiak honakoak dira:

- Nafarroako Ospitalegunearen (aurrerantzean, NO) eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren (aurrerantzean, OOL) gastuek epealdiaren guttizkoaren ehuneko 55 eta ehuneko 26 egiten dute, hurrenez hurren. NOaren kasuan, 2019ko gastua nabarmen hazi da 2015ekoarekin alderatuta (ehuneko 19), OOLkoak ehuneko 9ko igoera duen bitartean.

- Tuterako ospitaleak (RSO, aurrerantzean) eta Lizarrako ospitaleak (GOO, aurrerantzean) epealdiko guttizko gastuaren ehuneko hamar eta ehuneko sei egin dute hurrenez hurren; bi kasuetan, 2019ko zenbatekoak handiagoak dira 2015ekoak baino, nahiz eta Tuteran kantitateak ehuneko 23ko gorakada eta Lizarran ehuneko zortziko gorakada izan.

Gastua ordainsari-kontzeptuka eta kudeatze-zentroka aztertzen badugu 2019an, honakoak dira emaitzak:

(milioitan)

Kontzeptua	Nafarroako Ospitalegunea	OOL	RSO	GOO	Osasun mentala	Bes-terik	O-NOZko Zuzendaritza Nagusia
Presentzia fisikoko guardia	13,13	3,89	2,23	1,32	0,40	0	-0,03*
Jaiegunak	5,45	1,29	0,85	0,55	0,32	0,57	0
Produktibitatea	1,94	2,88	0,36	0,16	0,07	0,51	0,02
Guardia lokalizatua	3,57	0,37	0,83	0,39	0,09	0,13	0
Gauekotasuna	3,15	1	0,58	0,34	0,19	0,27	0
Kapitazioa, sakabanaketa geografikoa	0	4,74	0	0	0	0	0
Opor-ordainsariaren hainbanaketa	2,49	0,60	0,45	0,25	0,10	0,11	0
Errotazio-txandak	2,09	0,34	0,37	0,18	0,12	0,15	0,02
Bisitak pasatzea	1,86	0	0,30	0,18	0	0	0
Ordu-gaindikina	0	0,51	0	0,05	0	0,08	0,01
Guardiaturutza	0,09	0	0,09	0,09	0	0	0
Artatzezko guardia lok.	0,17	0,02	0,02	0,05	0	0	0
Artatzezko orduak:	0,09	0	0,01	0	0	0	0
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>34,03</b>	<b>15,64</b>	<b>6,09</b>	<b>3,56</b>	<b>1,29</b>	<b>1,82</b>	<b>0,02</b>

\* Kopuru negatiboa langileen itzulketei dagokie.

Ordainsari-kontzepturik gehienak NOko langileek jasotzen dituzte (guardiak, jaiegunak eta abar); alabaina, kasuren batean, hala nola produktibitatearena eta ordu-gaindikinarena, gasturik handiena OOLren esparruan dago kokatuta.

#### **Gastu-hartzaileen kopurua kudeatze-zentroka, 2019an**

Gastu-jasotzaileen kopurua, ordainsari-kontzeptu aldakorraren eta kudeatze-zentroaren araberak, honakoa da 2019an:



	Hartzaile kopurua							Guztira
	NO	OOL	RSO	GOO	Osasun mentala	Besterik	Zuzenda- ritza na- gusia	
Presentzia fisikoko guardia	1.033	854	164	78	67	0	0	2.196
Jaiegunak	4.407	1.175	622	364	277	259	0	7.104
Produktibitatea	926	1.868	109	40	38	122	9	3.112
Guardia lokalizatua	607	120	133	53	35	11	0	959
Gauekotasuna	3.171	581	570	299	233	227	0	5.081
Kap., sakabanaketa geo- grafikoa	0	1.797	0	0	0	0	0	1.797
Opor-ordainsariaren hain- banaketa	5.884	1.447	825	446	352	250	108	9.312
Errotazio-txandak	3.775	409	536	282	249	159	777	6.187
Bisitak pasatzea	572	0	83	47	0	0	0	702
Ordu-gaindikina	0	207	0	44	47	129	16	443
Guardiaburutza	38	0	36	26	0	0	0	100
Artatzeako guardia lokali- zatua	138	36	12	17	0	0	0	203
Artatzeako orduak:	331	0	67	18	0	0	0	416
<b>Jasotzaileen kopurua</b>	<b>5.982</b>	<b>2.663</b>	<b>843</b>	<b>456</b>	<b>394</b>	<b>236</b>	<b>120</b>	<b>10.694</b>

2019an ordainsari aldakorrak jaso zituzten pertsonen guztizko kopurua 10.694koa izan zen; kontuan hartu behar da ezen kopuru hori, berdin delarik globala nahiz antolatze-unitatekakoa izatea, ez dela kontzeptukako hartzaile-batura, zeren pertsona batek berak haietako bat baino gehiago jaso baitezake.

2019an, hartzaile bakoitzeko batez besteko eta gehieneko urtealdi-gastuak, kontzeptuka, honakoak izan ziren:

Kontzeptua	Batez besteko urtealdi- gastua hartzaile bakoitzeko	Gehieneko urtealdi-gastua hartzaile bakoitzeko
Presentzia fisikoko guardia	9.531	56.017
Jaiegunak	1.271	6.782
Produktibitatea	1.909	83.907
Guardia lokalizatua	5.620	66.663
Gauekotasuna	1.088	5.949
Kapitazioa, sakabanaketa geografikoa	2.638	9.612
Opor-ordainsariaren hainbanaketa	430	5.959
Errotazio-txandak	529	4.742
Bisitak pasatzea	3.333	16.386
Ordu-gaindikina	1.467	44.174
Guardiaburutza	2.700	5.060
Artatzeako guardia lok.	1.284	17.840
Artatzeako orduak:	240	3.563

Ikus daitekeenez, hartzaile bakoitzeko batez besteko urtealdi-gastua nabarmenki aldentzen da gehienekotik; besteak beste, ordainsari aldakorrak jasotzen dituzten iraupen laburreko kontratu-enganatik. Kontzeptu guztiak globalki analizatzen baditugu, emaitza da batez besteko urtealdi-

gastua hartzaile bakoitzeko 5.840 eurokoa dela, eta pertsona batek jasotako gehieneko urtealdi-gastua 108.263 eurokoa dela.

### II.3. INFORMAZIO SISTEMAK

Badago kudeaketa-aplikazio bat, Denborak eta Txandak izenekoa (DeT, aurrerantzean), eta horretan islatzen dira langile bakoitzaren ordutegi-erregela (lan-ordutegia edo lanaldia) eta lan-egutegia, Halaber, hartan jasotzen dira, banakaturik, ordainsari aldakorrak pagatzera eramaten duten inguruabar gehienak (guardia, jaiegunak, produktibitateak eta abar).

Bestetik, SAP-GGBB modulua ere badago, eta horrek sortzen ditu nomina-erreziboak. Modulu honetan, informazioa bi eratarata sartzen da: automatikoki, DeT aplikazioaren bidez, eta eskuz, ordu-gaindikinarenean, kapitazio eta sakabanaketaren eta bisita-pasatzeen kontzeptuetarako.

Kudeatze-zentro batzuetan beste aplikazio batzuk daude, edo datu- nahiz dokumentu-baseak, zeinetan ordainsari aldakorrei buruzko informazioa eransten baita, gero SAP-GGBB-ra lekualdatzen dena: horrela, esate baterako, NON PERS aplikazioa dago, guardiak kudeatzekoa; edo RSON kontzeptu horrexetarako berariazko Access datu-base bat.

Behin SAP-GGBB moduluak nomina-erreziboak sortu ondoren, informazio hori SAP-GE21-era lekualdatzen da, eta bertan kontabilizatzen dira, aurrekontuko 1. kapituluari.

Txosten honi atxikitako 2. Eranskinean diagrama bat gehitu dugu, ordainsari aldakorren kudeaketari loturiko ingurune teknologikoari buruzkoa.

Nominaren kudeaketak behar bezala funtziona dezan, beharrezkoa da inplikaturako azpisis-tema bakoitzak bere zereginak betetzea eta azpisis-tema horiek elkarren artean behar bezala integratzea; horregatik, prozedura horiek berrikustea funtsezkoa da.

### II.4. ORDAINSARI ALDAKORREN KUDEAKETA O-NOZEN

Kontu-hartzaitza zerbitzuak txosten bat egin zuen 2016ko abenduan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio guztiko (NFKA, aurrerantzean) ordainsari aldakorrei buruzkoa. Lan horretan analizatzen zen, besteak beste, ordainsari aldakorrak ordaintzen zireneko O-NOZko kudeatze-zentro bakoitzean jarraituriko prozedura.

Prozedurari buruzko konklusio nagusia izan zen ezberdina zela ordainsari-kontzeptu bakoitzeko eta zentro bakoitzerako, eta ez zegoela, oro har, prozedura estandarizatu bateratu bat. Egiaztatu dugunez, konklusio horiek baliozkoak izaten segitzen dute. Horregatik, ez dugu kasu zehatz bakoitza deskribatzen, baizik eta ordainsari aldakorren kudeaketaren alderdi orokor batzuk azalduko ditugu jarraian:

- Pertsona bat O-NOZen zerbitzu ematen hasten denean, haren kontratua lotzen zaio ordutegi-erregela bat esleituta daukan postu bati. Erregela horrek zehazten ditu ohiko lanaldia, urteko ordu-kopurua eta kasuko postuak zilegi ote duen errotazio-txandei, gauekotasanari eta jaiegunei dagokiena jasotzea.

- DeT aplikazioak pertsona bakoitzaren ordutegi-erregela azaltzen du (goizeko orokorra, gau finkoak eta abar), bai eta denboran zehar gertatzen diren aldaketak edo inguruabarrak ere (txanda-aldaketak, jaiegunak, guardiak, absentismoak eta abar). Informazio hori guztia kasuko jarduera egiten duen pertsonaren arduradunak txertatzen du, eta dagokion isla dauka pertsona bakoitzaren nominan.

Horrek esan nahi du nominako ordainsari-kontzeptu aldakorrik gehienek beharrezko dutela, eta esanguratsua da, sisteman egokiro jasota egotea ordutegi-erregelari buruzko datuak, eta egin litezkeen aldaketak artez jasota utz ditzala horren ardura duen pertsonak.

- Zenbait kudeatze-zentrotan, nomina-arloko langileek artxiboetan jasotako informazioaren datu-kargatze masiboak egiten ditu SAP-GGBBen, zenbait kontzeptu aldakorretarako, hala nola guardiak edo produktibitateak; horrekin minimizatu egiten da okerrak egiteko arriskua, baina artxiboetako datuak eskuz sartuak dira.

- Aurreko puntuan azaldutakoa gorabehera, langileriaren arduradunek oraindik ere idazten dituzte paperean zenbait ordainsari-kontzeptu, nomina-arloko langileei bidaltzen zaizkienak, haien ordainketa egin dezaten.

- SAP-GGBB sisteman zenbait kontrol ezarri dira, ordainsari-kontzeptuen arteko talken gainekoak. Eragotzi egiten dute ordutegi-tarte berean jaso daitezela araudiaren indarrez elkarren artean bateraezin diren ordainsariak. Talka-sistema hori etengabeko hobekuntzan dago, eta denbora joan ahala kontrol berriak ezartzen dira, balizko ordaintze-okerrak identifikatzen doazen heinean.

### III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Informazio-sistemen, legedi-betetzearen eta finantzen gaineko auditoretza bat egin dugu, helburu hauekin:

- Ondorioztatzea ea sistema horietako aplikazio informatikoetan eta eskuzko prozeduretan dauden kontrolen eraginkortasun-mailak moduzko konfiantza-maila eskaintzen ote duen, bermatuko duena ordainsari aldakorrek kudeatzeko prozedurak egokiro betetzen direla eta transakzioak artez kontabilizatzen direla, eta akatsak edo irregulartasunak gertatzeko arriskua gutxituko duena.

- Egiaztatzea ea O-NOZko ordainsari aldakorrek kudeatzeko prozedurak eta haien kontzeptu eta zenbatekoak bat ote datozen aplikatzekoa den araudiarekin.

- Egiaztatzea ea O-NOZko langileen 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsari-kontzeptu aldakorretan eginiko gastuaren aurrekontu-partidak prestatu ote diren, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorritz eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- O-NOZko langileen 2014-2019 epeko ordainsari aldakor SAP-GE21 moduluan jasoeekin zerikusia duten gastu-partiden aurrekontu-betetzeak.

- Analizaturiko ordainsari-kontzeptuei buruz SAP-GGBB moduluan jasotako informazioa.

- O-NOZko langileen ordainsari aldakorrei aplikatzekoa den araudia.

- O-NOZko langileen ordainsari aldakorrek kudeatzeko prozedura, horren barne dela txosten honen 2. eranskinean jasotako aplikazio eta sistema informatiko inplikatuak gordetzen duten informazioa.

Ganbera honek 2019ko azaroan txosten bat argitaratu zuen, Hezkuntza Departamentuko funtzionarioen nominaren kudeaketari buruzkoa; lan horretan SAP sistemaren 13 kontrol orokor egin genituen, eta 40 espezifiko, SAP transakzioen gainekoak, NFKA guztiko nominen prozesu amankomunei buruzkoak. Kontrol horien emaitza gogobetegarria izan zen; hori dela-eta, ordainsari aldakorrekin zuzeneko zerikusia duten transakzioak analizatu ditugu, eta ez besterik. Zehazki, 28 kontrol egin ditugu 2018ko 54,71 milioiko gastu baten gainean (guztizkoaren ehuneko 93), eta 26, 2019ko 50,63 milioiko gastu baten gainean (guztizkoaren ehuneko 81).

- Gainera, 2018an 14 proba substantibo egin ditugu halako kontzeptuetan non kontrolek ez ziguten behar besteko ebidentziarik eskaintzen ordainsari aldakorren ordainketa dakarten baldintzen betetzeari buruz; batez ere, guardiei dagokienez.

- Kontrol horiek eta proba substantiboak egiteko, 724.583 erregistro analizatu dira guztira 2018an, eta 594.430, 2019an.

Jarraian aipatzera goaz gure txostenaren prestaketan eragin nabarmena izan zuen zirkunstantzia bat; hasiera batean, norainokoa 2018ko gastuaren analisisa zen. 2019ko azaroan plantillei buruzko informazioa eskatu genien zenbait zerbitzu eta osasun-etxeri, oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun laguntza espezializatuaren arloko proba substantiboak egin ahal izate aldera.

Gero, proba horien eta gainerako kontrolen emaitzak lortu ondoren, erabaki genuen noraino-koa 2019ko gastua barne hartzeraino hedatzea; gastu horren gain egin ditugun kontrolak ia-ia 2018koaren gain eginiko berberak dira. Alabaina, Covid-19aren ondoriozko egoera dela-eta, Ganbera honek ez zuen egokitzen jo aipatu arloei plantillei buruzko informazioa eskatzea, kontuan izanik zegoen osasun-alarmako egoera eta haien langileen lan-zama. Hori dela-eta, proba substantiboak 2018an bakarrik egin genituen.

Bestalde, gure lanean eragina izan duen zertzelada bat aipatu beharra daukagun, nahiz eta ez duen gure lana ezertan mugatu. O-NOZek ez dauka inolako kontrolik, ebidentzia eskaintzen duenik ordainsari aldakor guztien ordainketa sorrarazten duen ordu-tartean langileek izandako presentzia fisikoaz edo haiek eginiko jardueraz, salbu eta guardia lokalizatuari eta kapitazio eta sakabanaketa geografikoagatik plusari dagokienez. Hurrengo epigrafeko konklusioak eta iritziak erdietsi ditugu kontuan harturik zerbitzua kasu guztietan eman dela, hartzaileek beren ordainsariei buruz dituzten kexen munta txikia, eta egin ditugun kontrolak eta proba substantiboak.

#### IV. IRITZIA

##### **Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna**

O-NOZko langileen ordainsari aldakorren kudeaketaren gaineko erantzukizuna partekatu egiten dute O-NOZek, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuak.

O-NOZko langileen ordainsari aldakorren kudeaketa egokiari euskarria eta bermea ematen dioten aplikazio informatikoen eta aktiboen kudeaketa dagokie Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiari eta aplikazio propioak dauzkaten gainerako kudeatze-zentroi.

Aipaturiko departamentu eta organizazio-unitateek bermatu behar dute ezen O-NOZko langileen ordainsari aldakorren kudeatze-jarduerak, horiekin zerikusia duten aurrekontu-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arauekin. Halaber, behar-tuta daude barne-kontrolako sistemak ezartzera, hain zuzen ere beharrezkoak jotzen dituztenak urteko kontuak iruzur edo errakuntzaren ondoriozko oker materialik gabe prestatu eta aurkezteko beharrezkotzat jotzen dituztenak.

##### **Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna**

Gure erantzukizuna da iritzia ematea O-NOZko langileen ordainsari aldakorren kudeaketa dela-eta egin dugun fiskalizazioan oinarrituta, honako alderdi hauei buruz: barne-kontrolako sistema, operazioen legezketasuna eta kasuko aurrekontu-partidak.

Horretarako, fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen oinarritzko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazkiago, ISSAI-ES 200, 400 eta 500 arauen arabera, zeinek eraentzen baitituzte, hurrenez hurren, partida zehatz baten berrikuspen finantzarioa, betetzeari buruzko berrikuspina eta informazioaren teknologien auditoretza. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoretza halako moduz planifika eta egin dezagula non ezagutza egokia lortuko baitugu O-NOZko langileen ordainsari aldakorren kudeaketan erabilitako prozedurez, dauden arriskuez eta arrisku horiek arintzeko ezarritako kontrolaz (automatikoak zein eskuzkoak), bai eta moduzko segurtasun bat izatea ere, berrikusitako aurrekontu-partidetan akats materialik ez egoteari buruz, eta ekitaldietan zehar egindako jarduerak zein aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula honakoei buruzko auditoretza-ebidentzia bat lortzeko: kudeaketan aplikatutako prozedurei buruzkoa, aztertutako aurrekontu-partidetan ageri diren zenbatekoei eta informazioari buruzkoa eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak ekitaldi fiskalizatuan zehar betetzeari buruzkoa.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arrisku-balorazioa egitea, bai aurrekontu-partida analizatuetan iruzur edo errakuntza baten ondorioz oker materialen bat egotearena, bai legedi-urraketa garrantzitsuak egotearena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egitean, auditoreak kontuan hartzen du entitateak urteko kontuak eta –

horien parte gisa– aurrekontu-partida hauek formulatzeko eta legedia betetzen dela bermatzeko muntadun den barne-kontrola, halatan taxutzearen inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzei eta legedi-betetzeari buruzko iritzia eman dezagun, bai eta barne-kontrolari buruzko gure auditoretza-konklusiorako ere.

#### IV.1. BARNE KONTROLARI BURUZKO KONKLUSIOA

V.1 epigrafearen xehakapenari jarraikiz, honako hauek dira aztertu diren kontrolen betetze-gradua eta egindako proba substantiboen emaitza:

	Eraginkorra		Eraginkorra, gomendioekin		Ez-eraginkorrak		Kontrolak, guztira	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Kontrolak	11	12	2	2	15	12	28	26
	Emaitza gogobetegarria		Emaitza gogobetegarria, gomendioekin		Emaitza ez-gogobetegarria		Proba substantiboak, guztira	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Proba substantiboak	6	0	1	0	7	0	14	0

Lortutako emaitzetatik ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Detektaturiko okerrik gehienen jatorria, oro har, ordainsari aldakorra jasotzen duen pertsonaren gaineko ardura duten pertsonen eginiko eskuzko prozedurak dira, eta batez ere honako hauekin dute zerikusia: ez erregistratzea absentismoren bat, guardia- edo txanda-aldaketak, bi-koiztasunak.
- Kontrol presentzialerako sistemarik ez egotea beste ahulezia bat da, ezinezko egiten duena, analizaturiko kontzepturik gehienetan, egiaztatzea langileak benetan lantokian daudela ordaintzen zaien ordu-tartean.

Gure iritziz, eta aurreko inefizientziak alde batera utzita, ondoriozta daiteke ezen ordainsari aldakorrak kudeatzeko prozeduretan eta horiei euskarria ematen dieten informazio-sistemetan dagoen kontrol-mailak konfiantza-maila egoki bat eskaintzen duela, bermatzeko modukoa haiek ondo betetzen direla, eginiko transakzioak egokiro kontabilizatzen direla, eta kasuko informazioa balioduna, osoa, zehatza, konfidentziala eta eskuragarria dela.

#### IV.2. LEGEDIAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### Iritzia

Gure iritziz, ordainsari aldakorrek zerikusia duten aurrekontu-partidetan agertzen diren jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

##### Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak

Ordainsari-kontzeptu aldakorrak eraentzen dituzten arauak, erabakiak eta administrazio-egintzak askotarikoak dira, barreiatuta daude, eta, batzuetan, langileek haien berri ere ez dute; eta, ordu-gaindikinarene zenbateko unitarioa kalkulatzeari dagokionez, ez dago halako kalkulurik.

#### IV.3. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

##### Aldeko iritzia

Gure iritziz, O-NOZko langileen ordainsari aldakorrek zerikusia duten aurrekontu-partidek irudi fidela ematen dute, alderdi adierazgarri guztietan, 2018ko eta 2019ko abenduaren 31ko da-

ten arabera aztertutako kudeaketari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruarekin bat eta, bereziki, hartan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideekin bat.

#### **Muntazko beste zertzelada batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak**

O-NOZek ez dauka kontrol presentzialerako edo jardun-betetzea kontrolatzeko tresnarik, analizaturiko ordainsari aldakor gehienak jasotzen dituzten langileen benetako presentzia egiaztatzekorik.

### **V. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK**

Egindako lanaren konklusio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta aurkituriko oke-  
rak zuzentzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

#### **V.1. O-NOZKO ORDAINSARI ALDAKORRAK KUDEATZEKO PROZEDURA**

Jadanik adierazi bezala, ordainsari aldakor bakoitza kudeatzeko prozedura ezberdinak daude O-NOZ osatzen duten organizazio-unitate ezberdinetan.

Ordainsari aldakor bakoitza aztertu dugu kontzeptu eta organizazio-unitate bakoitzaren berezitasunak aintzat harturik, bai eta SAP-GGBBren, SAP-GE21ren eta DeT aplikazioaren konfigurazioa ere. Azterlan horri esker, dauden arriskuak identifikatu ahal izan ditugu, eta horiek murriztearren ezarrita egon beharko lirakekeen kontrolak taxutu.

Guztira, 28 kontrol berrikusi ditugu 2018an, eta 26 kontrol 2019an, eta datu-analisi masiboak egin ditugu kontrol horien funtzionamendua egiaztatu ahal izateko balidazioak egite aldera.

Horrez gain, 14 proba substantibo egin ditugu, 2018ko gastuarekin zerikusia dutenak, behar besteko ebidentziarik lortzeko moduko kontrolik egitea posible ez zen kasuetan.

2018ko gastu berrikusia 54,71 milioikoa da; hots, O-NOZko ordainsari aldakorren zenbateko osoaren ehuneko 93. Bestalde, 2019ko kantitate analizatua 50,63 milioikoa da, eta horrek egiten du kontzeptu horietan ordainduriko guztizkoaren ehuneko 81. Gure laginetik kanpo utzi ditugu Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari atxikitako langileei pagaturiko ordainsari aldakorrak, analizagaiaren osotasunaren ikuspegitik muntadun ez direla jotzeagatik.

Hurrengo orrialdeko koadroak biltzen ditu gure berrikuspenean jasotako ordainsari-kontzeptu aldakor bakoitzeko pagaturiko gastua eta analizatu dugun zenbatekoa, bai eta ebaluaturiko erre-gistroen kopurua eta kasu bakoitzean eginiko proba-mota ere (proba masiboen edo proba substantiboaren bitartezko kontrola), hala 2018rako nola 2019rako.

Kontzeptua	Pagaturiko zenbatekoa		Analizatutako zenbatekoa		Analizatutako erregistroen kopurua		Proba-mota	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Jaiegunak	8.447.988	9.029.363	8.429.994	8.429.994	135.184	137.940	Kontrola	Kontrola
Gauekolasauna	5.222.105	5.528.356	5.203.426	5.253.403	161.835	163.193	Masiboa	Masiboa
Errotazio-txandak, 2018ko urtarrila-iraila	2.347.044	0	2.310.085	0	150.980	0	Masiboa	-
Errotazio-txandak, 2018ko urriaz geroztik	991.310	3.274.261	990.942	3.104.482	27.440	96.096	Substantiboa (31 erregistro)	Masiboa
Presentzia fisikoko guardia, Osasun Laguntza Espezializatua	10.143.030	10.772.084	10.143.030	10.772.084	27.524	28.368	Masiboa eta substantiboa (121 erregistro)	Masiboa
Presentzia fisikoko guardia Oinarrizko Osasun Laguntza	3.076.198	3.158.703	3.076.198	3.158.703	20.344	20.376	Masiboa eta substantiboa (348 erregistro)	Masiboa
Presentzia fisikoko guardia, langile egotziarrak	6.563.543	6.998.932	6.563.543	7.027.687	21.737	22.622	Masiboa	Masiboa
Guardia lokalizatua Osasun Laguntza Espezializatua	4.967.218	4.969.607	4.879.600	4.879.762	29.966	29.239	Masiboa eta substantiboa (104 erregistro)	Masiboa
Guardia lokalizatua Oinarrizko Osasun Laguntza	412.050	420.264	412.050	375.746	2.787	2.875	Masiboa eta substantiboa (136 erregistro)	Masiboa
Artaiatzeko guardia, Osasun Laguntza Espezializatua	278.027	241.957	278.027	241.957	1.541	1.326	Masiboa	Masiboa
Artaiatzeko guardia, Oinarrizko Osasun Laguntza	11.645	18.706	11.645	18.706	95	135	Masiboa	Masiboa
Artaiatzeko orduak:	107.647	102.889	107.647	102.889	4.833	4.757	Masiboa	Masiboa
Guardiaburuitza-guardiak	269.518	270.827	269.518	270.827	1.131	1.119	Masiboa eta substantiboa (72 erregistro)	Masiboa
Bisitak pasatzea	2.216.209	2.339.691	2.216.209	2.339.691	8.603	8.854	Masiboa eta substantiboa (598 erregistro)	Masiboa
Sakabanaketa geografikoa	1.984.271	2.043.729	1.984.271	2.043.729	54.812	38.973	Masiboa	Masiboa
Kapitazioa	2.542.336	2.611.435	2.542.336	2.611.435	55.381	38.557	Masiboa	Masiboa
Produktibitatea, itxarote-zerrendak	794.461	115.934	794.461	0	3.104	0	Masiboa eta substantiboa (20 erregistro)	-
Produktibitatea, helburuak, Oinarrizko Osasun Laguntza	623.173	600.658	623.173	0	1.909	0	Substantiboa (84 erregistro)	-
Produktibitatea, koordinazioa	413.288	553.608	398.864	0	3.855	0	Substantiboa (139 erregistro)	-
Beste produktibitate batzuk	2.901.353	4.751.949	2.901.353	0	10.788	0	Substantiboa (177 erregistro)	-
Ordu-gaindikina	572.396	645.944	571.078	0	734	0	Substantiboa (12 erregistro)	-
<b>Guztira</b>	<b>54.884.810</b>	<b>58.448.895</b>	<b>54.707.448</b>	<b>50.631.093</b>	<b>724.583</b>	<b>594.430</b>		

2018ko gasturako, honako hauek dira kontrolen eta aurreko proben berrikuspenaren emaitzak:

	Eginiko kontrolak				Egindako proba substantiboak			
	Eragin-korra	Eraginkorra, gomendioekin	Ez-eraginkorrak	Guztira	Emaitza gogobetegarrria	Emaitza gogobetegarrria, gomendioekin	Emaitza ez-gogobetegarrria	Guztira
Jaiegunak	1	1	2	4	1	0	0	1
Gauekotasuna	1	1	1	3	0	0	0	0
Errotazio-txandak	0	0	1	1	2	0	0	2
Presentzia fisikoko guardia	2	0	2	4	0	0	3	3
Guardia lokalizatua	0	0	0	0	0	1	1	2
Artatzeako guardia	0	0	3	3	0	0	0	0
Artatzeako orduak:	0	0	4	4	0	0	0	0
Egoiliarren guardiak	2	0	1	3	0	0	1	1
Guardiaturutza-guardiak	1	0	1	2	0	0	0	0
Bisitak pasatzea	2	0	0	2	0	0	0	0
Sakabanaketa geografikoa, kapitazioa	2	0	0	2	1	0	0	1
Produktibitatea, itxarotzerrendak	0	0	0	0	0	0	1	1
Beste produktibitate batzuk	0	0	0	0	2	0	0	2
Ordu-gaindikina	0	0	0	0	0	0	1	1
<b>Guztira</b>	<b>11</b>	<b>2</b>	<b>15</b>	<b>28</b>	<b>6</b>	<b>1</b>	<b>7</b>	<b>14</b>

2019ko gasturako emaitzak ia berberak dira, kontzeptuka, analizaturiko 28 kontrolen kasuan (12, eraginkorrak; bi, eraginkorrak gomendioekin; eta 12, ez-eraginkorrak).

2018an eta 2019an, berrikusitako kontrolen ehuneko 50 eraginkorrak dira; halere, horietatik ehuneko 15en egokitzat jo dugu gomendio batzuk egitea haien eraginkortasuna hobetzeko; gainerako ehuneko 50, berriz, ez dira eraginkorrak. Proba substantiboek dagokienez, kasuen ehuneko 43n positiboa izan zen emaitza, eta horietatik ehuneko 17ri buruzko gomendioak egin dira; gainerako ehuneko 57ren emaitza negatiboa da.

Gogoan izanik emaitza horiek, kontrol bakoitzak osotasunari begira duen garrantzia eta 2019ko azaroko hezkuntzako langileen nominari buruzko txostenean Kontuen Ganberak eginiko kontrol orokorren emaitza, baieztatu dezakegu ezen, oro har, barne-kontrola moduzkoa eta egokia dela informazio-sistemen kasuan, baina akatsak dituela, kontrol presentzialik ezaren eta kudeaketan erabiltzen diren eskuzko prozeduren ondoriozkoak.

Jarraian azaltzen ditugu, gehienbat, kontrol eragingabeekin eta emaitza asegarririk gabeko probekin zerikusia duten zertzeladak:

#### **DeT aplikazioa eta SAP-GGBB**

- O-NOZko langileek DeT aplikaziorako sarbidea daukate, beren lan-egutegia bistartzeko. Baldin eta gau, jaiegun, guardia edo txanden aldaketarik tartean badago, haien arduradunak sartuko ditu aplikazioan aldaketa horiek. Orokorrean, langileek ez dute DeT aplikazioan sartu eta bertan gordeta dagoen informazioa balidatzeko ohiturarik, eta epe laburretarako kontratatuak diren langileek aplikazio horren berri ere ez ohi dute izan, batzuetan.

- O-NOZko arlo ezberdinetako unitate batzuetan jarduera ez da planifikatzen DeT aplikazioan gordeta dagoen informazioaren arabera, eta paperezko plantillak erabiltzen segitzen dute, aldaketak aplikazioan egokiro jaso gabe.

- Nahiz eta DeT aplikazioaren eta SAP sistemaren arteko interfazea ondo dabilen, baldin eta jatorrizko datuak horiek jasoko dituen pertsonak ez baditu berrikusten, edo ez badaude ondo sartuta, ordainketak ondo eginak ez egotearen arriskua dago. Baliteke langileek balizko akats horiek beren nomina-erreziboan ez detektatzea, zeren eta, oro har, ordainsari-konzeptu aldakorrek nominan izan ohi duten agerpena ez baita oso argia izaten, eta horrek oztopatu egiten du haien ulermena.



**Jaiegunak eta gauekotasuna**

• 2018. urteari dagokionez, egiaztatu dugu ea egun berean eta lanpostu berean jaiegun- edo gauekotasun-kontzeptua pertsona bati baino gehiagori ordaindu ote zaion. Honako hau izan da emaitza:

	Zenbat lanpostutan bi pertsonari ordaindu	Zenbat lanordu bi pertsonari ordaindu	Bi pertsonari ordainduriko orduen zenbatekoa (eurotan)
Jaiegunak	485	5.573	43.167
Gauekoak	579	12.098	40.397
<b>Guztira</b>	<b>1.064</b>	<b>17.671</b>	<b>83.564</b>

Jaiegunak						
	Nafarroako Ospitalegunea	RSO	GOO	OOL	Osasun Mentala	Guztira
Ordu-kopurua	4.152	443	660	263	55	5.573
Zenbatekoa	31.807	3.548	5.188	2.193	430	43.167
Gauekotasuna						
	Nafarroako Ospitalegunea	RSO	GOO	OOL	Osasun Mentala	Guztira
Ordu-kopurua	9.375	637	831	978	277	12.098
Zenbatekoa	30.957	2.010	3.049	3.593	788	40.397

Bikoiztasun horien zergatiaren berri eman ziezaguten eskatu genien kasuko kudeatze-zentroei, eta organizazio-unitate ezberdinek azaldu digute zein izan daitezkeen ordainketa bikoitz horien balizko arrazoiak; hots:

a) Kasuko pertsonaren absentismoa erregistratu gabe utzi izana DeT aplikazioan, baina bai erregistratuz egonen ez den pertsonaren lana egiten duen beste pertsona, halako moldez non SAP-GGBBek ulertzen baitu kasuko zenbatekoa bi pertsonari behar diela ordaindu.

b) Beste zergati bat da ezinezkoa dela datuen gurutzatzea ordutegi-tarteka egitea, SAP-GGBBn ez baitira agertzen ez jaiegunaren hasiera-ordua ez bukaera-ordua ere, ez eta egun zehatz horretan pertsona bakoitzak bere lana zer ordutan egin duen ere; hori analizatzeko, pertsonak banan-banan analizatu beharko liriateke DeT aplikazioan, eta litekeena da kasu batzuetan ordainketa bikoitz hori justifikatuta egotea.

Hori dela-eta, ezinezkoa izan zaigu analisi masibo bat egitea jaiegunaren eta gardien ordainketek elkarrekin talka egiten ote dutenentz. Nolanahi ere, kasuko errakuntzak ez ziren muntazkoak. Balizko errakuntza horiei buruzko 2018ko lagin bat atera dugu, eta egokia izan da emaitza.

c) Norberaren aferengatiko absentismo-egunak 7 ordu eta 20 minutuko lanegunetarako daude taxututa; horrenbestez, problemak sortzen dira egun horiek 10 orduko gau-lanaldietan kontsumitzeko. Esate baterako, horren ondorioz, 22:00etatik biharamuneko 08:00etarako lanaldian absentismo bat gertatzen bada adierazitako arrazoiarengatik, ez da laneratzerik gertatuko 7 ordu eta 20 minutu igaro ondoren; lan-denbora bete arteko gainerako denbora beste pertsona batek egiten du, baina denbora-tarte hori biei ordaintzen zaie. Lehenago bazegoen berariazko absentismo bat, zeinetan inguruabar horren berri ematen baitzen, ordainketa bikoitza ezintzen zuena. Baina bertan behera utzi zen.

d) OOLn, fakultatibo batek lanaldi-murrizketa bat hartzen duenean, haren lanpostuko ordu horiek egiten dituen beste pertsona bat kontratatzen da. Arlo honetan dagoen fakultatibo-eskasia dela-eta, pertsona kontratatu horri lanaldi-hedapen bat egin dakiok, beste pertsona baten premiak estaltzeko, baina beste lanpostu bat esleitzen ez zaiola. Kasu horietan, bi pertsonari ordaintzea zuzentzat jotzen dugu.

e) *Irakaslanean diharduten langile fakultatiboek ordu-poltsa bat dute beren eskuera, eta litekeena da haien konpentsazioa gauetan lan ez egitea izatea, baina horren berri DeT aplikazioan adierazi ez izana. Horrek esan nahi luke ordainketa bikoitza okerra litzatekeela.*

f) Eszedentzian egondako langile fakultatiboek kasu batzuetan zenbait hilabetez birziklatu beharra izaten dute, beren lanera itzuli aurretik; horrelakoetan, beste pertsona bat kontratatzen da, eta biek kobratzen dituzte beren lanpostuari atxikitako ordainsari aldakorrak.

g) Litekeena da DeT aplikazioan erregistratu gabe egotea oporregatiko absentismo batzuk; horrek esan nahi du ordainsari aldakorrak ordaintzen zaizkiola bai lanean ez dagoen pertsonari bai haren ordeiz diharduenari.

h) Absentismo bat erregistratzen denean, sistemak automatikoki atxikitzen du lanaldiaren lehenbiziko zatira. Modua dago absentismo-orduak zeintzuk izan diren espresuki adierazteko, baina batzuetan ez da horrela jokatzeko, eta horren ondorioz, litekeena da 24 orduko txandetan gauekotasunaren ordainketa bikoitza bat egotea, zuzena dena.

Kudeatze-zentroek adierazitakoak dira zergati horiek, eta gaur egun aztertzen ari dira zein kasu sartuko liritekeen horietako bakoitzean, salbu eta Osasun Mentalaren kasua, zeinetan jada hasiera eman baitaio itzulketa-espeditari, guztira 1.218 euroko zenbatekoa duela.

Litekeena denez kasu batzuetan zuzen eta beste batzuetan oker jokatu izana, ezinezkoa zaigu ondorioztatzea ea gainerako kudeatze-zentroi dagokienez adierazitako gauekotasun- eta jaiegun-orduak artez ordaindu ziren ala ez.

- Egiaztatu dugunez, 2018ko sei kasutan eta 2019ko zortzitan, gau finkoen erregela aplikaturik, urtean 1.535 ordukoa, ordu ordainduen kopuru hori gainditu egin da. Kasu guztietan, horren arrazoia izan da erregistratu gabe zegoela oporren ondoriozko absentismoa. Pertsona horietatik, liberatu sindikalak ziren hiru, eta horiei buruzko analisi xeheagoa egingen dugu hurrengo puntuetan.

### **Errotazio-txandak**

Postu bati ordutegi-erregela esleitzen zaionean, adierazi behar da errotazio-txandarik egingen den ala ez. Ikusi dugunez, erregularizazioak egin dira, bai 2018an bai 2019an, egindako lanegatikozko zenbateko atzeratuak kontzeptu horren arabera ordainduz. Zenbateko horiek ordaindu gabe zeuden, aukera hori kasuko postuan adierazi gabe zegoelako.

### **Presentzia fisikoko guardiak eta guardia lokalizatuak**

O-NOZen ez dagoenez kontrol presentzialik ez eta jardueraren erregistrorik, zeina aginduzkoa baita, gure probak 2018ko azaroa harturik egin ditugu, eta honako emaitza hauek lortu dira:

- Oro har, Laguntza Espezializatuan kontrol bat egiten da eginiko guardia-orduen guztizkoaren gainean, okerreko ordainketak ekiditeko; halere, aurkitu dugu akatsen bat egon dela kontzeptu hori ordaintzean organizazio-unitateen antolatze-plantilletan agertzen direnak ez beste pertsonari.

- OOLn sei osasun-etxetako hilabetealdi-plantillen lagin bat berrikusi dugu, eta akats anitz detektatu dugu, honakoetan gauzatuak: bost aldiz guardia bi pertsonari ordaintzea, bakarrari ordaindu behar zitzaion arren; bi kasutan, guardia egin zuenaz beste pertsona bati; eta bederatzik kasutan ez zaio inori ordaindu, nahiz eta ordaindu beharrekoa izan.

Azaldu digutenez, kontzeptu hori inori ordaindu ez zaion egunak egoteak esan nahi du pertsonak jakitun izan direla lehenagoko nominetan hutsegiteak egin izanaz, okerreko ordainketak eragin dituztenak; komunikatzen dute, eta okerrak konpentsatzen dira geroko nominetan inori ez ordaintzearen bitartez. Nahiz eta horrek konpentsatu konpentsatzen duen hasierako ordaintze okerra, gertaturikoak erakusten du ez dagoela kontrolik ordainsari-kontzeptu zehatz honetan.

- Honako araudi-urraketa hauek aurkitu ditugu:

a) OOLn hilabeteko egin daitekeen guardia-orduen gehieneko kopurua 34koa da. Bada, egiaztatu dugunez, 2018an, 237 pertsonak 8.933 ordu egin dituzte, 1.077 okasiotan, muga horre-

taz gaindi. 2019an egoera horretan 381 pertsona aurkitu dira, 1.640 okasiotan, eta guztizko ordu-kopurua 18.835ekoa izan da.

b) Langile egoiliarrei dagokienez, aurkitu dugu ezen bi pertsonak 20 okasiotan gainditu dituztela araudiak presentzia fisikoko guardian egoteko baimentzen dituen hilabeteko 168 orduak, zeinak baitagozkie 24 orduko zazpi guardiari.

c) Egiaztatu dugu ezen zazpi kasutan ez dela errespetatu araudiak ezarritako lanaldi arteko 12 orduko atsedena.

Hein handi batean, urraketa horiek langile fakultatiborik ezaren ondoriozkoak dira, gehienbat OOLn. Hori dela-eta, lehenetsi egiten da gaixoak artatzea, arauak ezartzen duenaren aldean.

#### **Artatzezko guardia lokalizatua**

- Guardia lokalizatuagatik nominan ordainduriko ordu-kopurua ez dator bat DeT aplikazioan kontzeptu honetarako eta ordutegi-tarte berean erregistraturiko orduekin, 73 langileri dagokionez. 2018an, horren efektu ekonomiko garbia litzateke O-NOZen alde 378 euro ordaintzea. 2019an, 19 enplegaturi dagozkie zifra horiek, eta efektu ekonomiko garbia O-NOZen aldekoa da, 211 eurokoa. Ez dakigu zein den datu zuzena, eta horregatik, ezin dugu horri buruzko iritzirik adierazi.

- Detektatu dugu 2018an zazpi kasutan eta 2019an bitan ordaindu dela kontzeptu hori, guardia lokalizatuaren ordainketarik gabe. Nahiz eta horren zergatia izan litekeen okerren bat egin izana datak sartzean, sistemak ez luke horrelakoetarako biderik eman beharko.

- Egiaztatu dugu ezen, 2018ko hiru kasutan eta 2019ko zortzitan, aldi berean ordaindu direla guardia lokalizatua, artatzezko guardia lokalizatua eta artatzezko orduak. Ez dakigu zer zenbaterako den zuzena, eta horregatik, ezinezkoa zaigu kuantifikatzea zein den oker ordaindutako zenbaterako, eta ondorioztatzea ea akatsa d<tuak gaizki sartzeagatik gertatua den.

#### **Guardiaturutza-guardiak**

- Ikusi dugunez, 2018an, oker baten ondorioz Nafarroako Ospitalegunean bikoiztuta ordaindu zitzaizkien kontzeptu hauek lan hori otsailean egin zuten pertsonen, guztira 6.692 euro egin zuten 532 ordurengatik. 2019an akats hori bera gertatu zen 58 ordu errepikaturekin eta, gainera, kontzeptu honengatik 27 ordu ordaindu zitzaizkien zerbitzu bereko eta ordutegi-tarte bereko bi pertsonari; 2019an, 85 ordu horien guztizko zenbaterako 1.080 eurokoa izan zen. Organizazio-unitate horretatik jada ekin zaio kasuko itzulketari-espienteari.

#### **Artatzezko orduak:**

- O-NOZko<sup>4</sup> osasun-laguntzako aplikazio informatiko nagusietarako sarreraren edo arrastoen analisi bat egin dugu, kontzeptu honengatik kobratu duten pertsonen buruzkoa, ordaindu zaizkien egun eta ordutegi-tarteetan. Lortu dugun emaitzak ez digu modurik eman horri buruz ezin konklusio ateratzeko, aplikazio horietarako sarrera bat ez baita nahitaez beti egon behar, edo geroagoko egunetan egin baitaiteke.

#### **Kapitazioa eta sakabanaketa geografikoa**

- Kontzeptu horiengatik jasotako zenbaterakoak lortzen dira prozedura konplexu eta katramilatsu baten bitartez, ez dituen bilaturiko helburuak lortzen, Ganbera honek 2018ko martxoko txostenean adierazi zuen bezala, O-NOZko aldi baterako kontratazioari buruz. Zertzelada horretaz jada ohartarazi zuen NFKAko Kontu-hartzailera Orokorrak, txosten hau baino lehenagoko lan batean.

<sup>4</sup>Historia Klinikoko aplikazioa, bai Laguntza Espezializaturako bai Oinarrizko Osasun Laguntzarako; erizaintzako IRATI aplikazioa eta administrazio-alorreko LEYRE aplikazioa.

### Produktibitatea, itxarote-zerrendak

- Aurkitu dugu ezen, kasu batean, aldi berean ordaindu zirela kontzeptu hau eta presentzia fisikoko guardiarena, eta beste hirutan guardia lokalizatukoarekin batera jaso zen. Ezin dugu jakin zein den zenbateko zuzena; horrela, ba, ezinezkoa zaigu balizko hutsegitea kuantifikatzea.

- Sistemak erakusten duenez, gutxienez ere 731 produktibitate-erregistro egon ziren nomina-kontzeptu honi lotuak, 0:00tik 07:00etara bitarteko denbora-tartean ordainduak. Hori ez da logikoa.

- Analizatzearen ea ordainsari-kontzeptu honen kasuan betetzen ote den administrazio-prozedura, O-NOZ eko esparru guztietan ordaindutako produktibitateari buruzko bi eguneko lagin bat berrikusi dugu. Kasu guztietan bete da prozedura, salbu eta RSOk batean, zeinetan, egiaztatu genuenez, ez baita aurkitzen mota honetako produktibitatea egin izateari dagokion ordainketa baimentzeko ebazpena.

- Kasu honetan, halaber egin dugu O-NOZko gaixoaren osasun-laguntzako aplikazio informatiko nagusi jadanik aipatueterako sarreraren edo arrastoen analisi bat, kontzeptu hau kobratu duten pertsonen buruzkoa, kobrantza horren jatorri diren egunak aztergai hartuta. Lorturiko emaitza izan da artatzeako orduen kasuko bera, eta ezin izan dugu horri buruzko inolako ondorioirik atera.

### Beste produktibitate batzuk

- Egiaztatu dugu ea kasuko pertsona lanean ari ote zen produktibitate-eguna kobratu zuen egunean, itxarote-zerrendak murrizteko produktibitatea kontuan hartu gabe. Emaitza izan da erantzuna ezezkoa izan litekeela 92 kasutan. Lanaldi osotiko absentismoaren zergati erregistra-tuak honakoak dira:

Absentismoaren zergatia	Zenbat aldiz	Ordainduriko produktibitate-zenbatekoa
Oporrak	37	9.926
Guardiatikoko librantza	18	6.670
Aurreko urteko oporrak	12	2.521
Norberaren aferak	12	4.066
Kreditu sindikala erabiltzea	5	907
Udalerriko jaiegunak	2	363
Aurreko urteko norberaren aferak	1	235
Urtealdiko ordu-zenbaketa-erako doikuntza	1	209
Ahaide baten ospitaleratzea/gaixotasuna	1	52
Gaixotasun arrunta	1	235
Lan-istripua	1	235
Ahaide baten heriotza	1	160
<b>Guztira</b>	<b>92</b>	<b>25.579</b>

Ikusten denez, zergati ezberdinak daude, eta horietako batzuk bateragarriak izan litezke pertsona bere lanaldian absente baina produktibitatea egun horretan bertan egoteko moduan egoitearekin. Kontrol presentzialik ez dagoenez, ezin gara horri buruzko inolako konklusiotara iritsi.

### Ordu-gaioak

- Ez dago araututa zer zenbatekorekin ordaintzen diren ordu hauek, baina, oro har, opor-ordu baten prezioa izaten da.

Ikusi dugu RSO-n hasiera batean horrela kalkulatu dela zenbateko hori, baina gero, produktibitate-erako ezarritako prezioan ordaintzen da.

OOLn, funtzionarioei nahiz urteko egutegi esleituak duten iraupen luzeko kontratadun pertsonen ordu horiek ordaintzen zaizkie produktibitate-ordu baten zenbatekoan; gainerakoei opor-ordu baten prezioan ordaintzen zaizkie (zenbateko hori produktibitatearena baino txikiagoa da). Tuterako OOLn, urte osoan zeharreko absentismoak betetzeko egiturazko kontratua duten langile fakulta-

tiboei opor-ordu prezioan ordaintzen zaizkie eginiko lehen 198 orduak, eta kopuru horretatik aurrera, produktibitate-orduaren prezioan.

- Tuterako Barrutian, ordainsari aldakor hori jasotzen da sistemak hori erregistratzeko bera-riaz daukan kontzeptuaz bestelako nomina-kontzeptu batean.

### **Liberatu sindikalak**

Askatasun sindikalerako eskubideak ordainsari-kaltegabetasuna bermatzen du, zeinaren bidez liberatu sindikalek beren lanpostuari dagozkion oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarri arruntak jaso behar baitituzte. Zenbait desadostasun daude ordainsari aldakorrak jasotzeari dagokionez, baina gehienek uste dute kaltegabetasun-bermeak horiek ere barne hartzen dituela.

O-NOZen kasuan, liberatu sindikalek jasotzen dituzte beren postuaren ordainsari aldakor guztiak, haien ordezko pertsonak egindakoak, barne delarik opor-ordainen hainbanaketa, aurreko urteari lotua. Ordainketa horiek 2018 eta 2019. urteetarako analizatu ditugu, eta emaitza hauek lortu:

- 2018an liberatu sindikal ziren 18 pertsonetako 15i eta 2019ko 22 pertsonetako 20ri, zeinek gauekotasun- eta jaiegun-osagarria jaso baitute, ez zaizkie beren oporren berri idatzita utzi; horrek esan nahi du ordainsari-kontzeptu hori jaso dutela 13 hilabeterako guztira, zeinak honela osatuta baitaude: haien ordez diharduen pertsonak kontzeptu honi loturik egin dituen ordainsari guztiak, opor-ordainsariaren hainbanaketa, bai eta beren lanpostuari dagozkionak ere, beren ordezko pertsona oporretan dagoenean. Kontuen Ganberak deritzo ezen adierazitako kontzeptuen ordainketaren hainbanaketari dagokion zenbatekoa ez zitzaiela pertsona horiei ordaindu beharko, haien oporrak ez bazeuden sisteman sartuta. Zenbateko horrek 4.729 eta 5.616 euro egiten ditu 2018an eta 2019an, hurrenez hurren.

- Oporrak erregistratu egin zaizkien hiru pertsonak, eta egun horietan ordainsari aldakorrik jaso ez dutenak, Tuterako Osasun Barrutikoak dira. Deigarri suertatzen da badagoela esparru horretako beste liberatu sindikal bat, oporrik erregistratu ez diotena.

## **V.2. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK**

Konklusio bezala esan daiteke O-NOZko ordainsari aldakorrak muntazko gastu bat direla, 2019an 62,45 milioira iritsitakoa (58,75 milioira 2018an), eta pertsona-multzo kopurutsu batek jasotzen dituela (10.694k 2019an, eta 10.101ek 2018an), gaixoari ahalik eta osasun-arretarik onena emateko. Aintzat harturik ezen ororen gain lehenetsi beharrekoa dela herritarren osasun-zaintza, pentsatu behar da ordainsari-kontzeptu horien kudeaketa zaildu dezaketen faktoreetako batzuk direla zenbait alorretan dagoen langilerik eza eta eguneroko lanaren antolaketan eten-gabe egiten diren aldaketak.

Oro har, erabilitako aplikazio eta sistema informatikoak egokiak dira eta behar bezala funtzionatzen dute, haietan automatikoki nahiz eskuz sartu diren datuei dagokiena ordainduz pertsona bakoitzari. Ez dagoenez kontrol presentzialerako edo jarduera-egiaztapeneko bitartekorik, modua emanen duenik egiaztatzeko nork egin duen ordainsari aldakor horiek jasotzeko eskubidea ematen duen lana, mendekotasun nabarmena sortzen da eskuzko informazioarekiko, zeina gehienbat O-NOZko organizazio-unitate desberdinen arduradunek sartu ohi baitute.

Gure lana egitean, akatsak detektatu ditugu, eskuz eginiko informazio-sartze horren ondoriozkoak nagusiki eta, hein txikiagoan, sistema informatikoetan kontrol automatikorik ez egotearen ondoriozkoak, nahiz eta etengabeko hobekuntzan dauden.

Bestalde, ikusi dugu ezen, Ganbera honek bere txostenetan azpimarratu izan duen bezalaxe, kudeaketan erabilitako aplikazio eta sistemen gaineko jakintza gehienbat kanpo-enpresetan edo enpresa publikoetan kokatzen dela, eta ez NFKAren langileria propioan. Horrenbestez, bere horretan dirau enpresa horiekiko mendekotasunak, haien langileria izaki informazio honen egiazko edukitzailea, horrek kudeaketaren parte hain garrantzitsu batentzat dakarren arriskuarekin.

Egindako lanaren konklusioak kontuan hartuta, jarraian egiten ditugu aztertutako kudeaketa hobetu dezaketela deritzegun gomendioak:

- O-NOZko kontrol presentzialerako edo jarduera-egiaztapeneko sistema bat ezartzea, kon-tuan harturik zeinen pisu handia duten ordainsari aldakor horiek, oro har lantokian izandako pre-sentziari lotuak.
- Oinarrizko Osasun Laguntzako gardien kudeaketa hobetzea, kontrol-prozedura gehigarri-ren bat ezarriz, Laguntza Espezializatuaren kasuan bezala.
- DeT aplikazioari dagokionez:
  - a) Haren erabilera sustatzea ordainsari aldakorak jasotzen dituzten O-NOZko langileen ar-tean, egiaztatze aldera kontzeptu adieraziak bat datozela eginiko lanarekin. Era horretan, har-tzaileari bere nomina ulertzen laguntzen zaio.
  - b) O-NOZko organizazio-unitateen arduradunek kasu guztietan erabil dezatela, beren ardu-rapean dituzten pertsonak lan-jardunean egin ditzaketen aldaketak jasoak uzteko (guardiak, txandak eta abar).
  - c) Langileen absentismoa kasu guztietan erregistratzea, liberatu sindikalak barne, ordain-keta bikoiztuak edo bidegabeak ekiditeko.
  - d) Zerbitzutiko irteera guztiak eta haien iraupena behar bezala adieraztea.
- SAP-GGBB moduluan honako inguruabar hauek jasotzeko aukera baloratzea:
  - a) Betebehar gisa ezartzea, 24 orduko txandak dituzten postuetan, berariaz adieraz daite-zela absentismoa gertatuko den orduak.
  - b) Ezinezkoa izatea zenbateko ezberdinak ordaintzea, guardia lokalizatuaren eta arta-tzezko guardia lokalizatuaren ordainsari-kontzeptuen kasuan.
  - c) Ezinezkoa izatea artatzezko guardia lokalizatuak ordaintzea, ez bada guardia lokalizatu-rik izan.
  - d) Ezinezkoa izatea aldi berean ordaintzea guardia lokalizatuak, artatzezko guardia locali-zatua eta artatzezko orduak.
  - e) Ezinezkoa izatea guardiak produktibitateekin ordaintzea.
  - f) Sisteman nolabaiteko absentismoren bat sortzea, ezinezkoa izan dadin gauekotasuna zenbait zirkunstantzian ordaintzea, hala nola oporregatik absentismoa.
  - g) SAP sisteman talka bat taxutzea, ezinezkoa eginen duena guardiaburutza-ordainsaria pertsona batek baino gehiagok jasotzea ordu-tarte eta zerbitzu berean.
- Balizko ordainketa bikoiztuak aztertzea eta, kasua bada, itzulketa-espeditentari hasiera ematea, liberatu sindikalen kasuan adierazitako zenbatekoak barne.
- Mugak errespetatzea lanaldien arteko atsedenaldiri eta araudian ezarritako gehieneko guardia-kopuruari dagokienez.
- Ordainduriko gaindikin-orduen zenbatekoaren kalkulua arautzea, zein ere den pertsonaren kontratu-mota.
- Ordu-gaindikinagatik ordaindutakoaren zenbatekoa horretarako dagoen nomina-kontzeptuan erregistratzea.
- Errotazio-txandak postuei artez esleitzen ote zaizkien berrikustea eta, kasua bada, behar diren erregularizazioak egitea.
- Sakabanatze geografikoaren eta kapitazioaren osagarriak ezartzen dituen kalkulu-sistema sinpletzea.
- Itzarote-zerrendak murrizteko produktibitatea egiteko ezarritako prozedura betetzea.
- Ordainsari aldakorrei buruz dauden arau guztiak arau bakarrean bateratzea, eskuraerraza izan dadin.

- *Komenigarritasun-analisi bat egitea NFKAn informatikako langileria propioa hartzeaz, langileen ordainsarien kudeaketan erabilitako sistema inmatikoen ezagutzan sakondu ahalko duena.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga


## 1. ERANSKINA O-NOZKO ORDAINSARI ALDAKORREI APLIKATZEKO DEN ARAU-esparrua

- Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duena.
- 158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamendua onesten duena.
- 44/2003 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuei dagozkien ordainsari osagarriak zehaztu eta esleitzen dituena.
- 294/2004 Foru Dekretua, irailaren 6koa, zeinaren bidez arautzen baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako oinarrizko osasun laguntzako taldeetako osasun-langileei esleitutako kapitazio osagarria eta sakabanatze geografikoko osagarria.  
1146/2006 Errege Dekretua, urriaren 6koa, Osasun Zientzietako espezialisten prestakuntzarako egoiliartasuneko lan-harreman berezia arautzen duena.
- 19/2008 Foru Dekretua, martxoaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen ordainsari osagarriak egokitzen dituena, horrela betetzen baita Administrazioak eta sindikatuak izenpetu zuten akordioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruzkoa, 2006. eta 2007. urteetarakoa.
- 14/2009 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoa aldatzen duena, lanpostu batzuen lansari osagarriak egokitzeko, eta langileen guardiak egiteko osagarria gaurkotzen duena.
- 2004ko maiatzaren 6ko akordioa, zeinaren bidez onesten den Osasun Administrazioak sindikatuekin izenpetutako hitzarmena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sareko ospitaleetan medikuntza-guardiaturtzak ezartzeari buruzkoa.
- 2004ko maiatzaren 6ko akordioa, zeinaren bidez onesten den Osasun Administrazioak sindikatuekin izenpetutako hitzarmena, guardia-salbuesteen araubideari buruzkoa.
- 102/2004 Ebazpena, abenduaren 21ekoa, oinarrizko osasun laguntzako zuzendariarena, zeinaren bidez lan-zamarako haztapen-indizeak ezartzen baitira, adin-tarteen arabera, osasun-txartel indibidualei aplikatuko zaizkien kapitazio-osagarria eta sakabanatze geografikoaren osagarria kalkulatzeko aldera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzako taldeetako mediku eta erizainei.
- 2008ko martxoaren 13ko Akordioa, zeinaren bidez onesten baita Osasun Administrazioak sindikatuekin izenpetutako hitzarmena, landa-eremuan oinarrizko osasun laguntza etengabea emateari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen beste lan-baldintza batzuei buruzkoa.
- 323/2009 Ebazpena, otsailaren 9koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira Osasun Laguntza Espezializatuan eta Oinarrizko Osasun Laguntzan koordinazio-eginkizunak betetzeko baldintzak.
- 1/2010 Jarraibidea, urtarrilaren 22koa, zeinaren bidez ordainketari buruzko arauak ezartzen baitira bisita pasatzeko orduari, guardiei eta itxarote-zerrendak murrizteko programa berezietan parte hartzeagatiko produktibitate-osagarriari dagokienez .
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2010eko otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez jarraibideak ematen baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan langile-gastuen jarraipena eta kontrola egiteari buruz.
- 2/2010 Ebazpena, martxoaren 5ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez jarraibideak ezartzen baitira produktibitate bereziaren kontzeptuko ordainketak egiteko.



- 3/2010 Jarraibidea, urriaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, O-NOZi atxikitako langileen ordainsariei buruzko neurri bereziak, defizit publiko murriztekoak, aplikatzeari buruzkoa.
- 1391/2012 Ebazpena, irailaren 20koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baita 2012. urteari eta ondorengoei aplikatuko zaiela 2005eko maiatzaren 4ko akordioa, artatzezkoak izan diren guardia lokalizatuko orduen diru-ordainari buruzkoa .
- 331/2013 Ebazpena, martxoaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzko laguntzako eta landa-larrialdietako zerbitzuetako taldeetako langileen egutegia eta lanaldi-banaketako araubidea.
- 56E/2014 Ebazpena, apirilaren 15ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzko laguntzako eta landa-larrialdietako zerbitzuetako taldeetako langileen egutegia eta lanaldi-banaketako araubidea.
- 609/2014 Ebazpena, ekainaren 2koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bitartez baimentzen den Nafarroako oinarritzko osasun laguntzako produktibitate aldakorraren osagarriari dagokion gastua, 2014ko urtarrilaren 31ko Akordioa garatuz.
- 180E/2015 Ebazpena, ekainaren 30ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez onesten baita solairuko bisita-orduen modulua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ardurapeko zentroetan larunbat, igande eta jaiegunetan ospitaleratuta dauden gaixoak artatzeari dagokionez.
- 2/2016 Jarraibidea, maiatzaren 16koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, lanaldi-gaundikinen arauketari buruzkoa.
- 1/2018 Jarraibidea, martxoaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, langileria alorreko 2018rako neurriei buruzkoa.
- 512/2018 Ebazpena, maiatzaren 14koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan koordinazio sanitario ez-medikoko eta koordinazio ez-sanitarioko eginkizunak betetzeko baldintzak.
- 616/2019 Ebazpena, ekainaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira Osasun Laguntza Espezializatuaren alorreko moduluak eta produktibitate bereziko osagarriaren baldintzak.
- 617/2019 Ebazpena, ekainaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira fakultatiboentzako produktibitate bereziko osagarriaren modulua eta baldintzak Oinarritzko Osasun Laguntzaren esparruan.
- 618/2019 Ebazpena, ekainaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez eguneratzen baitira Oinarritzko Osasun Laguntzan eta Osasun Laguntza Espezializatuan produktibitate bereziko osagarriarengatik ordaindu beharreko zenbatekoak.
- 16/2019 Jarraibidea, urriaren 1ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, produktibitatearen prozedurari buruzkoa.

2. ERANSKINA DIAGRAMA, O-NOZKO ORDAINSARI ALDAKORRAK KUDEATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN APLIKAZIOENA.



**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Honako alegazioak egiten dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 2018-2019ko ordainsari aldakorrei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari buruz, zeina 2020ko ekainaren 9an jakinarazi baitzen, 2020/47 Ebazpenaren bitartez.

Lehenik eta behin, eskerrak ematen dizkiogu Nafarroako Kontuen Ganberari helarazi digun txostenagatik, bide-erakusle izanen baita bere edukiaren ondorioz abiaraziko diren hobekuntza-ekintzak ezartzeko.

Txostenari egin beharreko alegazioei heldurik, honako puntu hauek adierazi nahi ditugu:

1. Nahiz eta ez dagoen kontrol presentzialeko sistema arruntik, osasun-zentroetan egiten den jardueraren izaerak berak behartzen du ordutegia betetzera. Ospitaleratze-unitateetako eta larrialdi-zerbitzuetako txandakako lanak profesionala behartzen du zorrotza izatera sarrera- eta irteera-orduekin; izan ere, ezezkoan, zerbitzuaren funtzionamendu normala asaldutzen du eta bere lankideak kaltetzen ditu.

Gainerako zerbitzuetan (Kanpo Kontsultak, Kirofanoak eta abar), gaixoei hitzordua emateak eta zerbitzu-eskaera mardulak behartu egiten dute ezarritako lanaldiak betetzera.

Oinarrizko Osasun Laguntzako egoera konplexuagoa da, gaixoei hitzordua emateko agendak oso beteak daudelako eta horrek osasun-etxe askotan lanaldiak luzatzera behartzen duelako.

2. Ados gaude Kontuen Ganberarekin, Denborak eta Txandak aplikazioaren erabilera sustatu beharraz. Zenbait zerbitzutan, lanabes horren erabilera ohituraren ondorioa da, eta ohitura hori zaila da kentzen. Esandakoa gorabehera, azken urteotan Denborak eta Txandak kudeatzailearen aplikazioa hedatzen ari da.

3. Aintzat hartzen ditugu SAP-GGBB moduluan txertatzekoei buruz egiten diren gomendioak; dena den, SAPen garapena Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren zuzeneko eskumena da, eta zuzendaritza horrek erabakitzen dituen erritmoa eta intentsitatea ditu.

4. Gainerako gomendioei dagokienez, bai guardia-kartelera eta -programazioetan bai atsedeen errespetatze zorrotzean gertatzen diren aldaketei buruzko auziak O-NOZek etengabe azpimarratzen dituen gaiak dira, eta zentroen erantzuna izan ohi da zaila dela larrialdi-egoerak aurreikustea, bai arlo klinikoan bai bizitza pertsonala eta lana uztartzearenean, eta horren ondoriozkoak dira etengabeko aldaketak.

Adeitasunez,

Iruñean, 2020ko ekainaren 17an

Esteban Ruiz Álvarez jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen Zuzendaria

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-  
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen Zuzendariari, aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga